



# BEHI-JASA

Carlos Be

BOGA



# FITXA ARTISTIKOA

## Sormena

Boga-Boga

## Kanpo begirada

Marina Suárez Ortiz de Zarate

## Dramaturgia

Carlos Be

## Antzezleak

Adriana Salvo · Iñigo Aranbarri · Laura Penagos

## Aholkularitza eszenografikoa

Goizeder Izko

## Jantziak

Aiora Ganuza

## Argiztapena eta Soinua

David Bernués. Acrónica Producciones

## Aholkularitza artistikoa

Olatz Gorrotxategi

## Irudi Grafikoa

Sandra Vallejo

# PROIEKTUA ETA BERE INTERESAK

## PROPOSAMEN SOZIAL ETA BERRITZAILEA

Boga-bogak espiritu berritzailez eta konpromezu artistikoz aurre egin nahi izan dio genero indarkeria modu poetiko eta surrealista batean lantzen duen testu honi. Modu honetan, metaforaz betetako eszenaratze garaikide bati bide ematen dio, ikuslea emozionatzeko edo pentsa-arazten jartzeko aproposa dena.

Ikerketa fasea proiektuaren gakoetako bat da, horretarako sormen eta ikerketa eszenikoan eskarmentua duen lan-taldea elkartu dugularik.

**\*2022ko Erriberriko Antzerki Jaialdian egonaldi artistikoa egiteko aukeratutako proiektua.**

## GENERO IKUSPEGIA

Gure lan ildoari jarraiki, genero desberdintasunen bisibilizazio eta sensibilizazioan gure alea jarri nahi dugu. Horretarako, ez dugu aukeratutako testuaren gaia soilik kontuan izan; baita proposamenaren enfokea bera ere. Ia bere osotasunean emakumez osatutako lan-taldea osatu dugu, lidertza rolak ere emakumeengan egonik, emakumearen ikuspegitik ikertu eta pentsatzea hartu dugu helburutzat.

## SORMEN KOLEKTIBOAREN ALDEKO APUSTUA

Berdintasunean sortzeko nahiak, kolektibo gisa horizontaltasunetik lan egitera garamatza. Elkarrekin, hobeto pentsatzeaz gain, gehiago imajina dezakegu, dibertsifika gaitzke eta sentiberatasun artistiko ezberdinak elkar-nahas daitezen lortu dezakegu, ñabardurez eta esanahiz jositako proposamen eszeniko eta narratibo berritzaileak eraikitzen begira. Zuzendaritzaren funtzioa, kolektiboki sortutako material eszenikoa bildu eta kanpo-begirada eskaintzea litzateke, horrela produkzioaren emaitzaren kalitatea bermatuko delarik.

## EUSKARAREKIKO KONPROMEZUA

Antzezlanak bi formatuetan eskainiko da, Boga-Bogaren sormen lan guztien moduan. Baina prozesu osoan zehar euskararen erabilera erdigunean izango da erabat modu naturalean. Gure lurraldeko profesionalen arteko sormen-espazio eta bizikidetzak artistikoak eratzea da asmoa, sormena, elkar-lana eta orokorrean arte-eszenikoak euskaratik eta euskaraz bizi ditzagun.

## NAFARROAKO ANTZERKI PANORAMA ABERASTUZ

Proiektu honetan buru-belarri lanean ari garen profesionalok urte gutxi daramatzagu lanean nafar-antzerki panoraman. Hori dela eta, kanpoan landutako gure esperientzia eta talentua orain gure bizileku den honetan eskaintzeko aukera hau probestu nahiko genuke. Gure helburua beraz, nafar konpainia moduan gure tarteak topatzea da, gure lanarekiko maitasun eta konpromezu osoz, proposamen garaikide eta berritzaileekin programazioa aberastuz.

## BITARTEKARITZAK

Hezkuntzan ibilbide eta esperientzia eskerga duten partaideak ditugu taldean, bereziki genero berdintasuna landu izan dutenak proiektu desberdinetan. Hori dela eta, bitartekaritza programa bat garatu dugu gizarteko hainbat talderekin lanketak egin ahal izateko.

# ANTZEZLANA

## Genero indarkeriaren aurkako zigilua Espainiako Gobernuko berdintasun Ministerioa 2017

Fernando eta Margarita elkarrekin bizi dira. “Behi-jasa” datorrela esatea maite zaitut esatearen tankerako keinu bilakatu da beraien harremanean. “Behi-jasa” antzezlanak genero indarkeria eguneroko ogia den etxe batean sarrarazten gaitu. Etxe hau ez litzaguke hain arrotza, urrunekoa edo ezezaguna irudituko izatez. Hori bai; etxe horretan somatzen den sentimendu ilun horri maitasun deitzea, ankerkeria ikaragarria litzateke; eta horixe da hain justu hain arrotza, urrunekoa edo ezezaguna ez zaigun Margarita eta Fernandoren etxe horretan aurkituko duguna: Bere emazteari maite zaitut-ik ankerrena esaten dion gizon bat.

Antzezlanaren haserako zatia:

*FERNANDO.- ¡TXIKI!*

*MARGARITA.- ZER DA?*

*FERNANDO.- BEHI JASA! BEGIRA.*

*MARGARITA.- EGIA DA.*

*FERNANDO.- BEGIRA HORI ZEINEN HANDIA DEN. IKARAGARRIA.*

*GALDU EGIN DUZU. ZEINEN AZKAR ERORTZEN DIREN.*

“Tratu txarren gaia poesiaren bidez eta antzerki absurdoaren ukituarekin lantzen duen testu harrigarria.”

“Emakume ugariren egunerokotasuneko tragedia ixilduari zuzendutako begirada gordin baina poetikoa da; Korala bezain sendo beren ibilbidea hasi baina genero indarkeriaren ondorioz petalorik gabe geratzen joan diren Margariten istorioa.”

Testua izen bereko pelikularen bidez zinemara eraman zuten eta 2017ko Malagako Zinema Jaialdian estreinatu zen.

# AUTOREA



## Carlos Be

(Espainia, 1974) antzerkigile eta zuzendaria da, baita La Casa Be antzerki konpainiaren gidoilari eta sortzailea ere. Hogeita bi urte zituela, Medikuntzako lizentziatura uztea erabaki zuen, arteari eta kulturari bete-betean ekiteko. Bere antzerki eta ikus-entzunezko sorkuntzek komunitatearen balioen, aniztasunaren eta berdintasunaren aldeko apustua egiten dute. Bere lanak Txilen, Kolonbian, Ekuadorren, Espainian, Estatu Batuetan, Italian, Mexikon, Panaman, Txekiar Errepublikan eta Venezuelan estreinatu dira, besteak beste, Madrilgo Cuarta Pared Aretoan, New Yorkeko Espainiar Errepertorioan, Bogotako Antzoki Nazionalean eta Venezuelako Antzoki Nazionalean.

Espainiako kritikaren ustez, «Azken urteetan bizitzen ari den antzerki-mugimendu honen protagonista nagusietako bat da» (Julio Bravo, ABC), «El enfant terrible del teatro madrileño» (José Luis Romo, El Mundo) eta «un autor llamado a empresas mayores» (Javier Villán, El Mundo).

Besteak beste, Caja España, Borne eta Serantes sariak jaso zituen antzerki-testuengatik. 2017an, genero indarkeriaren aurkako zigilua jaso zuen Espainiako Gobernuko Berdintasun Ministerioaren aldetik.

2017an Llueven Vacas izen bereko lanean oinarritutako zinema-egokitzapenaren gidodia ere sinatu zuen. Filma Malagako Zinemaldiaren 2017ko edizioan estreinatu zen, lehen mailako aktore zerrenda batekin: María Barranco, Víctor Clavijo, Asier Etxeandia, Laia Marull, Gloria Muñoz, Eduardo Noriega eta Maribel Verdú.

# TALDE ARTISTIKOA

## Adriana Salvo

### aktorea-sortzailea

Granadako Quinto Espiral-ean Aktore Poetika Prestakuntza egin zuen 2005-2008 urteetan. Ondoren, Madrilen prestatu zen Lorena García de las Bayonasekin Aktorearen Zentroan, 6 ikasturte eginez. Ana Laanekin Linklater Ahots Metodoan trebatu zen, Miguel Bardemekin kameraren aurrean interpretazioa edo antzerki erreferenteak diren Alfredo Sanzol, Consuelo Trujillo, Andrés Lima, Catalina Lladó, Pablo Messiez, Julián Fuentes Reta, Denise Depreyoux edo Espe López-ekin besteak beste.



Sorterrira itzuli zenetik, Nafarroako hainbat konpainietan lanean dabil eta aldi berean Boga-Boga produkzioetako proiektuetan sortzaile eta ekoizle moduan ibiltzen da. Bere azken lanen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: «Margarita Margarita (Raúl Madinabeitia Management S.L.)», «¡ Estás en Babia !» eta «Martinarene Parke Fantastikoa» (Producciones Maestras), «Descubriendo a Hamlet» edo «Pintaketan» (azken hori Yarlekuarekin koprodukzioan). Madrilen egindako ibilbidean pertsonai anitzak sortu zituen, besteak beste honako hauek: David Ramiro Ruedaren zuzendaritzapean «Píntame» eta «la Cicatriz», «Lorena García de las Bayonas» («47. Artikulua») edo «Iñaki Nietoren Maitasun Minuskuloak». Cronopia films-en «Blue Lips» luzemetraietan parte hartu du, baita Tus Ojos-en «Victoria 20-30» filmean ere. Duela gutxi RTVEko «Ana Tramel» telesailean lan egin du.

Aktore eta sortzaile izateaz gain, irakaslea ere bada, Pedagogia Aktiboan eta Generoan zein Kultura Ikasketetan aditua. PIBE metodoan (Eszenetan oinarritutako Psikoterapia Integratiboa) formakuntza du.



## Iñigo Aranbarri

### aktorea-sortzailea

Aspalditik Nafarroan bizi den aktore gipuzkoarra, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean (TAE) eta Devising theatre & Performance LISPA (London International School of Performing Arts) burutu ditu bere antzerki ikasketak. Tomas Prattki, Amy Russell, Wendel Wells, Philipp Schaefer, Mateo Feijoo, Roberto Lalli, Jose Luis Raymond, Phillip Tellier & Fanny Giroud, Ander Lipus, Manex & Ximun Fusch, Igor de Cuadra, Paco Merino & Diego Lorca, Santiago Sanchez eta Pablo Ibarluzea bezelako profesionalekin trebatu da.

Bestalde, Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua da, eta Hezkidetzeta eta Genero gaiak antzerki bidez landu izan ditu eskoletan. 2005. Urtean ekin zioen antzerki-ibilbide profesionalari, eta ordutik eszenatokiz eszenatoki dabil. Bere azken lanen artean, honako hauek nabarmen dira: «Kopaz-kopa» (Txalo produkzioak), «Fadoak Entzuten zituen Gizona» (Xake Produkzioak), «MCBTH» Arriaga Antzokiaren ekoizpena (Álex Gerediaga), eta «Txarriboda» (Hika Teatrotan).

Era berean, antzezle eta sortzaile izan zen "Dejabu" antzerki konpainian, eta Donostia Saria irabazi zuen 2012 eta 2015 urteetan, hurrenez hurren, "Gure Bide Galduak" eta "Arrastoak" antzezlanekin. Telebistan, HBOk Espainian ekoiztutako lehen telesaila izan den «Patria» edo EITBrentzat ekoiztutako «Ihesaldia» zein «Pilotari» telesailetan pisuzko pertsonaiak jokatu ditu. Paper txikiagoak izan ditu «La Casa de Papel», «Goenkale» eta «Eskamak Kentzen» en. Zinemari, Paul Urkijoren "Irtati", Lara Izagirreraren "Nora" edo Koldo Almandozen "Oreina" filmetan hartu du parte, besteak beste.



## Laura Penagos

### aktorea-sortzailea

Bogotako Teatro Libre Eskolan graduatu zen. Berehala hasi zen antzerki irakaskuntzan. Irakasle Kolonbiako hainbat antzerki unibertsitatetan egin izan du lan. Aktore gisa, hainbat muntaia profesionaletan ibilia da. 2004an Kolonbia osoa zeharkatu zuen Heiner Kippardek Bogotako Antzerki Librearekin egindako «Oppenheimer kasua» obrarekin. 2006an, Bertolt Brecht-en Ama Koraje obran lanean egon zen, Teatro Libre eta Casa Nacional del Teatro de Bogota-ren eskutik. 2005ean Federico García Lorcaren "La casa de Bernarda Alba" egin zuen Cartagenako Arte Ederren Eskolan.



2008an Nafarroara bizitzera iritsi zen. Besteak beste, Workcenter Grotowski eta Thomas Richards taldeekin jarraitu du Bartzelonan eta Italian. Eremu eszenikoan interesa duten aktoreei gorputz eta ahots prestakuntzak eskaintzen dizkie.

2021ean Artedrama plataforma eszenikoak eta Huts Teatrotik ekoiztutako LURRA GARRATZ, historiako aktore protagonista izan da. Gaur egun, bere metodologia ikertzen eta garatzen ari da prestakuntzari eta sormen-prozesuei dagokienez.

## Marina Suarez Ortiz de Zarate

### kanpo begirada

(Gasteiz, 1988) Artista bisuala, eszenikoa eta interpretea. Arte Ederretan lizentziatua UPV/EHUn. Práctica escénica y cultura visual (UCLM, Artea, MNCARS) masterra ikasi zuen Madrilan. Bere formakuntza arte plastikoen eta praktika eszenikoaren artean doa.

Izaera ezberdineko banakako nahiz taldeko proiektuetan lan egin du artista eta konpainia nazionalekin zein nazioartekoekin, eta hainbat arte espazioetatik pasatu da. Bere lanak eta kolaborazioak hainbat gune, jaialdi eta galeriatan ikusi ahal izan dira.

2013tik, bere jarduera Baratza aretoarekin oso lotuta dago. Bertan, Parasite konpainia egoiliararekin lotuta dagoen sorkuntza-lanaz gain, hainbat proiektutan lan egin du: jaialdiak programatu ditu, ekitaldiak koordinatu eta zabaldu ditu, eta pedagogia landu du ere. Gaur egun, aretoko Eszena-sorkuntzako Laborategia zuzentzen du, eta hainbat sortzaile berrien sorkuntza- rozesuetan laguntzen du. Tripak konpainiaren sortzailea eta kidea ere bada.

Azken urtean Metrokoadrokako lagunekin aritu da hainbat obretan antzezle zein zuzendaritza lana egiten.



# TALDE TEKNIKOA

## **Aiora Ganuza** **Jantziak**

Arte Ederretan lizentziaduna EHUUn eta Modan diplomaduna Yolanda Gaviria Moda Eskolan. UPV-EHUko Moda Diseinuko graduondoko bat ere badu, baita ordenagailu bidezko Patroigintzako prestakuntza ere, E-MOD.

Antzerki eta zinemako jantzien diseinatzaile gisa egiten duen lana Hari & ARI tailerrarekin uztartzen du. Bertan, bere arropa-marka egiten, irakasten eta saltzen du 2013tik. Zineman jantzi-laguntzaile gisa lan egin du honako film luze hauetan: «Irtati (Ikusgarri Films )», «Bajo Terapia» (Tomasol media), «Te quiero Imbécil», «Blue Lips» (Cronopia Films) eta «Baztan» (Nasa Producciones).

Bestalde, 2012. urtetik, antzerkian hasi zenetik, ikuskizun ugari pilatu ditu Nafarroako hainbat konpainiatako jantzien diseinatzaile gisa. Besteak beste, Bernarda Albako Kuartel Etxea (Cardo Producciones), Erretalak eta Etxe txikiena (Yarleku Teatro), Miguel Angel Buttiniren "Una pareja cualquiera", edo Iluna Teatro, dira bere lanetako batzuk.

## **David Bernués . Acrónica Produzioak** **Argiztapen-diseinua**

David Bernués ikus-entzunezko errealizadorea eta argiztapen- diseinatzailea da. 18 urte baino gehiago daramatza arte eszenikoetan zein telebista lanetan. Arte eszenikoetan Tanttaka Teatrotan, Kukai Dantza Teatrotan, Teatro Español, Imprebis, Vaiven Producciones, HikaTeatrotan, El Temple, Fieradeleje Danza, Teatro Meridional, Nafarroako Ganbera Opera eta Opus Lirica konpainien ekoizpenetan lan egin du, besteak beste. Kukai Dantzaren Oskara ikuskizunarekin Max 2017 sarietan finalista geratu zen, Argiztapen Diseinu Onenaren atalean. Argiztapen diseinuaz gain, hainbat antzerkietarako ikus-entzunezko diseinua eta sorkuntza egiten du. Horien artean aipagarriak dira Kukai Dantza taldearen Gauekoak ikuskizuna, Mireia Gabilondok zuzendua, Lloviendo Ranas, Ados Teatroak eta Acrónica Produccionesek ekoiztua eta Garbi Losadak zuzendua, edo ¡Estás en Babia! Haurrentzako ikuskizunak, edo Producciones Maestras-en Martinaren Parke Fantastikoa, Ana Maestrojuanek zuzendua.

## **Goizeder Izko** **Aholkularitza eszenografikoa**

Iruñean batxiler artistikoa eta dekorazioa ikasi ondoren, Eszenografia ikasketak egin zituen Madrilgo R.E.S.A.D.-en. Ikasketak amaitu zituenean, 2008. urtean, Madrilgo Circo Price antzokian ekoizpen teknikoko arduradun gisa hasi zen lanean gaur egun arte. Antzerki horretako zuzendari tekniko gisa egindako lanekin batera, espazio eszenikoen diseinuko eta teknikako aholkularitza eskaintzen du. MADPAC (Madrilgo Zirkuko Profesionalaren Elkarteak) elkarteko kide aktiboa da eta ikuskizun garaikideen jasangarritasunaren eta arte eszenikoen berrikuntzaren alde lan egiten du.

## **Sandra Vallejo** **Irudi grafikoa**

Arte Ederretan lizentziaduna Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). 2012an argazkilaria hasi zen lanean eta, ondoren, ekoizpen zinematografikoan ere trebatu zen, agertokiaren diseinuan espezializatuz eta arte-zuzendari gisa hainbat proiektutan parte hartuz. Garaikideak taldeko kide da. Bertako irudi grafikoa eta NAK urteroko jaialdirako bideosormenak egiten dituelarik. 2018an Pamplona Negra jaialdirako bere lehen laburmetraia idatzi eta zuzendu zuen, El Ahorcado 360º errealitate birtualean. 2020an hainbat publizitate-kanpaina, bideoklip eta film labur egin zituen atrezzista gisa. Gaur egun, Madrilan lan egiten du, produzioko laguntzaile gisa, RTVEko "Aprendemos en Clari" Telesailean.



# BOGA-BOGA

2018an bere ibilbidea hasi zenetik Boga-Bogak hainbat sorkuntza egin ditu.



## Píntame-Pintaketan:

Yarlekurekin koprodukzioan, obra 2019an estreinatu zen Gayarre Antzokian gaztelaniaz eta Tafallako Kulturgunean euskaraz. David Ramiro Ruedaren testuaren egokitzapena da. Hiru urtez egon zena Madrilgo antzokietan.

## DESCUBRIENDO A HAMLET



21/07/2019 | 20:15h.

Palacio Real  
Ollite

Adriana Salvo y Daniel Granda sobre  
"Hamlet" de William Shakespeare  
**BOGA-BOGA**  
CICLO POÉTICAS TEATRALES

## Deskubriendo a Hamlet:

2019ko Erriberriko Antzerki Poetikako Ziklorako hautatu zen pieza laburra, 2020ko udan "Oinak Hodeietan" jaialdirako egokitua izan zena.



## Leire eta Jon:

Galkidea kooperatibarako enkarguz sortutako pieza hau "Ekin eta sortu zeure istorioa" programaren barruan. Gazteekin Genero-indarkeriariaren prebentzioan lan egiten duen pieza hau 2018tik aurrera Nafarroako hainbat herrialdetan gauzatzen dabil oraindik.



"Amets egiten nuela amestu nuen" pieza "Burlata, Berdintasunerako Hiri Hezitzailea" proiektuaren barruan sortu zen. Burlatako Berdintasun Alorrak Ibain aholkularitza-enpresari enkargatutako kaleko pieza da. Hiriko hainbat eragilerekin egindako partaidetza-prozesutik abiatuta sortu zen, eta herritarrek ikuskizun berean parte hartu zuten.



CARTEL



# KONTAKTUA

**ADRIANA SALVO**  
**676419428**

[bogabogainfo@gmail.com](mailto:bogabogainfo@gmail.com)  
Boga-Bogari buruzko informazio gehiago  
[www.bogabogaprodukzioak.com](http://www.bogabogaprodukzioak.com)